

HERRI KIROLAK / ESKOLA KIROLA POTROKOLOA “SUSTAPEN LANA”

"Sustapen lana" atala Herri Kirolak eskola-mailan sustatzean oinarritzen da eta Bizkaiko ikastetxeetan zehar egiten den lana da. Batetik, Herri Kirolen diziplina desberdinak sustatzeko eta eskola-adinean Herri Kiroletako diziplina desberdinen funtzionamendua nolakoa den ikasteko, eta bestetik, "Sustapen lana" egiten den ikastetxe horietan, ikasleek Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federazioak antolatutako Herri Kirolen jardunaldietan parte har dezaten sustatzeko.

Zuen ikastetxean lan hori egiteko, federazioko teknikariak aurrera eramango lukeen protokoloa aurkezten dizuegu.

1- TALDEEN GESTIOA

Zentroak berak aurrez ezarritako burbuila taldeak ez dira nahastuko. Diziplina desberdina talde bakoitzarekin espezifikoki landuko dira.

2- MATERIALAREN GESTIOA

Lan hori egiteko astea hitzartu ondoren, federazioak lagatako materiala ikastetxean geratuko litzateke aste horretan zehar. Materiala, aldez aurretik egindako desinfekzioarekin iritsiko da. Materiala deskargatzeko orduan, teknikariak, eta kasu horretan, lan hori egiteko laguntzailerren bat emango balitz, eskularruekin deskargatuko da. Zama lanak egiteko, prozedura bera erabiliko da.

3- MATERIALAREN DESINFEKZIOA

Burbuila talde batek materiala erabili ondoren, hurrengo burbuila multzoak erabili aurretik desinfektatua izango da. Arreta berezia jarriko da heltzeko eremuak eta gorputzarekin kontaktua duten eremuak desinfektatzeko, adibidez:

- Txingak: heldulekuak desinfektatzea.
- Zakuak: heldulekuak desinfektatzea eta bizkarrarekin kontaktuan dagoen eremua.
- Lokotxak: lokotxak erabat desinfektatzea.
- Sokatira: sokari heltzeko eremua desinfektatzea.
- Giza proba: gurpilaren heldulekua desinfektatzea.
- Orga: heltzeko eremua desinfektatzea.
- Ingudea: ingudea beraren heldulekua desinfektatzea.

*** "Sustapen lana" n ez dira diziplina guztiak landuko; eskola-kiroleko jardunaldietan egiten direnak dira izendatutako diziplinak. Federaziotik edo ikastetxearekin adostuta, bost diziplina aukeratuko dira, eta horiek izango dira ikastetxean bertan landuko direnak.**

4- ESKUEN DESINFEKZIOA

Burbuila taldean bertan, diziplina aldaketak egiterakoan, ikasleek eskuak garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin. Burbuila talde berean, azpitaldeak osatuz, diziplina desberdinak egiten ibiliko bait dira aldi berean

5- MUSUKOA ETA ESKULARRUEN ERABILPENA

Teknikariak etengabe eramango ditu jantzita musukoa eta eskularruak. Ikasleen maskara ikastetxeko protokoloak berak ezarriko du.

*** Protokolo horiek ikastetxeak berak eskatuta aldatu ahal izango dira.**